

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuak beharrezkoak izango dituen alderdietan zentratzen bagara, argi ikus dezakegu hau garatzeko hainbat elkarteren laguntza ezinbestekoa dela. Atal honetan, gure enpresa aurrera eramateko funtsezko elkarteak izango direnak, hau da, elkarlanean arituko garen enpresak azalduko ditugu. Adibidez, gure jokoak eta hitzaldiak eman ahal izateko ikastetxeak beharko ditugu, eta gure proiektua aurrera eramaten lagunduko digute Gautena eta Eusko Jaurlaritzak



Hasteko, Uggasa enpresarekin harremanetan jarriko gara. Honek lokal bat izatea ahalbidetuko digu enpresari hileroko 30€-ko tarifa bat ordaintzearen truke. Gainera, lan egiteko txokoaz gain, hileroko ordaindu beharra izango dugun diru hartan sartuko dira Wifia, argindarra, ura eta gasak dakartzen kostuak, beraz ez dugu hortaz kezkatu beharko. Hasiera batean, gure txoko ideala bilatzeko interneten bilatzen hasi ginen, baina gero elkarte honekin topatu ginen eta gu bezalako ekintzaile berrientzako ideala iruditu zitzaigun. Gure kabuz lokal bat

alolatuko bagenu, diru asko utziko genuke han eta elkarte honek eskeintzen duen eskaintza honekin, behar ditugun aldagai guztiak oso prezio onean lortu ditzazkegu.

Bigarrenik, konturatu gara kanpoko beste laguntza batzuk beharko ditugula. Hortaz, inprenta batekin hitz egingo dugu behar ditugun kartelak eta posterrak egiteko. Publizitateaz gu arduratuko gara. Instagram, Facebook, Twitter... eta halako sare sozialen erabileraz baliatuko gara gure publizitateak indar gehiago artzeko.

Beste alde batetik, paperean diseinatu ondoren modu digitalera pasako dugu gure logoaren diseinua. Hau egiteko badugu aspalditik aplikazio bat ordainduta bertan gure logoa margotu daitekeena, aplikazio hau ClipStudio deitzen da, eta oso erabilgarria da bertan dauden funtzio aniztasunagatik. Modu honetan errazagoa iruditzen zaigu diseinuak egitea, ordenagailuak hainbat erramienta eta aukera ditu eta aldaketak egin behar badira askoz errazago eta azkarrago egiten dira. Bukatzeko, ordenagailuan egindako dena paper batean inprimatzea degu.

Horrez gain, Gautena elkartearekin ere harremanetan jartzea erabaki dugu. Gautena autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonen sentitartekoen elkarte da eta pertsona hauek bizitza zoriontsua izateko laguntza eta aukera egokiak



ematea du helburu nagusia. Helburuak berdinak ez izan arren, badugu lotura bat enpresa honen eraginekin, eta gure proiektua aberasteko funtsezko zati bat izango da. Honekin egingo duguna autismoa duen pertsona bat bere esperientzia kontatzeko gonbidatzea izango da. Badakigu zaila dela hau sentitzen duen pertsona batekin honi buruz hitz egitea eta horregatik bere burua hau egiteko gai ikusten duten pertsonak bakarrik etorriko direla ziurtatuko dugu. Hainbat pertsona ezberdinen kolaborazioa eskatuko dugu, hauek Gautenari esker izan duten eboluzioa kontuan izanik.

Amaitzeko, Eusko Jaularitzak ere gure proiektua aurrera eramaten lagunduko duela aipatu beharra dugu. Hark, gu kontratatu egingo gaitu gure enpresak garatzen duen ideia nagusiki Gipuzkoan zabaltzeko helburuarekin. Gainera, kontratatu egingo gaituenez, hilerio soldata jasoko dugu, eta horrek gure gastuak ordaintzen lagunduko digu.